



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 7a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Bitartekaritzari buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-inguruntetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta. Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Nafarroako Arartekoak N-121-A errepidearen Iruña-Sunbilla tarteari buruz egindako eskaria. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzan, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeko egin beharreko urratsak eginez. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Bitartekaritzari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, ez du aintzat hartu Nafarroako Foru Komunitateko Bitartekaritzari buruzko Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2021eko irailaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko irailaren 30ean onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz". Honako hau du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko,

Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz.

2. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu "Ondarezain" Elkartearen aldarrikapenak eta Nafarroako Gobernua premiatzen du Kultura Departamentuaren, Garapen Ekonomikorako (Turismo) Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren lana koordina dezan, erakusketa publikorako zentroetako jarduerak zehaztu eta sustatzeko xedez".

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko irailaren 30ean onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan". Honako hau du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroan bultza dezan zainketa aringarrien estrategia berri bat, honako puntu nagusi hauek jasoko dituenak:

- Zainketa aringarriak bermatzea Nafarroako Foru Komunitatean behar dituzten guztiei, edozein dela ere haien kokapena, etxeko laguntzarako zainketa aringarrien unitate bat sortuz.

- Baliabide materialak eta profesionalak eskaintzea, hala nahi dutenak, beren egoerak ahalbidetzen baldin badu, etxean zendu ahal izan daitezen, beren hurbilekoek lagunduta.

- Arreta psikologikoa eskaintzea pazienteari eta haren familiari, hil ondoko dolu osasungarri bat errazteko.

- Profesionalentzako prestakuntza plan bat abiaraztea, zainketa aringarrien eta bizitzaren bukaerako arretaren ingurukoa

- Zabalkunde plan bat egitea aurretiazko borondateen agiriari buruzkoa, osasuneko profesionalak gidatua, jendeari informazioa emanen eta balizko egoerak zein norberak erabakitzearen garrantzia azalduko dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako Ospitalegunean zainketa aringarrietako diziplina anitzeko unitate bat sor dezan, langile espezializatuek osatua, baliabide ekonomikoak optimizatuz eta osasun sistema jasangarriago bihurtuz, pertsona eta familia askoren desioak gogobetetzeko eta heriotzaren une ekidinezina humanizatzeko".

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2021eko irailaren 30ean onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan”. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Lanaren Nazioarteko

Erakundearen 189. Hitzarmena eta Etxeko Langileentzako Lanari buruzko 201. Gomendioa berresteko lanean jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorretan 6777. zuzenketa onetsi izanaren ondorioak lehengoratu ditzan”.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2021eko urriaren 5ean onetsitako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da: Nafarroako Gobernua premiatzen baita 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta. Hona erabakiaren testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan 14/2015 Foru Legearen 3. artikuluan –Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa eta motak–, 2. puntuan, emakumeen kontrako indarkeria mota bat gehiago jasotzea, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta”.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan Nafarroako Arartekoak N-121-A errepidearen Iruña-Sunbilla tarteari buruz egindako eskaria

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua N-121-A errepideko Iruña-Sunbilla tarteari buruz Nafarroako Arartekoak egindako eskaria aintzat har dezan premiatzen duen mozioa. Navarra Suma talde parlamentarioko Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du

eta 2021eko irailaren 24ko 109. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua Nafarroaren lehiakortasun-maila leheneratzea ekarriko duen erreforma fiskal bat aurkez dezan premiatzen duen mozioa. Foru parlamentari María Jesús Valdemo-

ros Erro andreak aurkeztu du eta 2021eko irailaren 28ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzan, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeko egin beharreko urratsak eginez.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua lankidetzako publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publiko bermatuko dituzten neurriak har ditzan premiatzen duen mozioa, energia berriztagarrien enpresa publiko bat eratzeko egin beharreko urra-

tsak eginez. Mozioa EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du eta 2021eko irailaren 28ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Iruñean, 2021eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

